

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos Lehendakariak Lizarrako Erdi Aroko Azterketen Nazioarteko Astearen ibilbide zabala nabarmendu du

45. edizioan, komunitate juduek Mendebaldeko Erdi Aroan izandako bizimodu soziala, kulturala, ekonomikoa eta politikoa aztertuko da

Asteartea, 2018.eko uztailak 17

Nafarroako Lehendakari Uxue Barkosek Lizarrako Erdi Aroko Azterketen Nazioarteko Asteak duen ibilbide zabala nabarmendu du gaur; aurten, gainera, [45. edizioa](#) izango da, eta komunitate juduak Mendebaldeko Erdi Aroan aztertuko dira. Halaber, nazioartean duen inpaktua eta eztabaida zientifikoen kalitatea azpimarratu ditu, "ezbairik gabe, Lizarra eta Nafarroa osoa erreferentzia-leku izatera eramango baitituzte Europako mediebaldismoarentzat".



Lizarrako Kultura zinegotzia, Regino Etxabe, Barkos Lehendakaria eta Juan José Larrea irakaslea, Batzorde Zientifikoko kidea

Horrela adierazi du datorren ostiralera, uztailaren 20ra, bitarte egingo den saioaren inaugurazioan. Eta horrekin amaiera emango zaie Espainiako Judutegien Sareak, "Sefarad-eko bideak", antolatutako ekitaldiei (Ega hiriak du horren lehendakari). Lehendakariaren hitzetan, "jarduera horiek agerian utzi dute Erdi Aroko hiriak Nafarroako gainerako judutegiekin duen lotura handia, kontuan hartuta Lizarrakoa hirugarren komunitate garrantzitsua izan zela Tuterako eta Iruñeko aljamen ondoren".

Lau egunetan zehar, bertaratzen direnek aukera izango dute ondorengoak ezagutzeko: juduaren estereotipo ezberdinak literatura hispanikoetan; erbeste sefardiaren kontakizunari buruzko historia eta memoria; komunitate juduak integratzeko edo kanporatzeko moduak, iberiar penintsulan nahiz mediterranean munduan eta Erdialdeko Europan eta kontinentalean, irudikapen ezberdinetan, hots, memoriaren topografian, ikonografian, literaturan eta bestelako adierazpen material eta kulturaletan.

45. edizioa

Lizarrako Erdi Aroko Azterketen Nazioarteko Astea Suitzako, Alemaniako, Frantziako eta Espainiako adituek hartuko dute parte.

Jardunaldiak uztailaren 17an hasiko dira, eta Jon Juaristi idazleak

juduak literatura hispanikoetan izandako estereotipo ezberdinez hitz egingo du, erbeste sefardiaren kontakizunari buruzko historiaren eta memoriaren ariketa moduan.

Inaugurazio-saioaren ondoren, hitzaldi ezberdinetan komunitate juduak integratzeko edo kanporatzeko moduak eta adierazpen materialak eta kulturalak jorratuko dira. Iberiar penintsula eta Erdialdeko Europa eta kontinentala, Mediterraneoarekin batera, hurbiltze berriak izango dira, memoriaren topografia, ikonografia, komunitateen irudikapena edo literaturan eta adierazpen kulturaletan duen presentziaren islari dagokienean.

Asteari amaiera ostiralean, uztailaren 20an, emango zaio, eta amaitu aurretik mahai-ingurua egingo da: “Menahem ben Zerah, Lizarrako talmudista”; espezialista nabariak aukera emango digute nazioarteko mailako pertsonaiaren biografiaren, obraren, gertaeren (1328ko program-en inpaktua) eta merituen inguruan hausnarketa egiteko, orain arte herritar gehienek ez baitituzte ezagutzen.

Aldi berean, astean zehar, ikertzaile eta doctorando gazteek komunikazioen aurkezpenak egingo dituzte; ardatz nuklearretako bat izango dira Astearen egitura berrian.

Hirugarren aldiz, ikertzaile berriak eta doktoregai gazteak gonbidatu dira; hots, antzeko gairen bat garatzen ari direnak. Helburua da ingurune pribilegiatua izatea, eztabaida zientifikorako nazioarteko foroa, egiten ari diren lanen berri emateko eta eremu horretan nabarmenak diren espezialisten aurrean aberasteko. Gainera, doktoregaien kasuan, haien parte-hartzea doktoretza-jarduera bezala onartu ahal izango da haiei dagozkien unibertsitate-programetan.

Aurreko edizioetan bezala, herritar guztientzat irekitako lantegia ere egingo da; hau da, “Dokumentuekin lanean juduen historiarako”. Uztailaren 17an izango da, arratsaldean, Los Llanos Kultur Etxean. Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak antolatuta, herritarrei gerturatuko zaizkie judu-munduak Nafarroan izandako pieza dokumental adierazgarrienak.

Lizarrako Udalaz gain, edizio honetan honako hauek esku hartzen dute: "Lizarrako Done Jakue Bideko Lagunak" elkarteak; Erdi Aroko Azterketen Espainiako Sozietatea, Astea estatu-mailan nahiz nazioartean hedatzen lagunduko duena; Lizarrerriko Ikerketa-Gunea; eta “la Caixa” Gizarte Ekintza, asistentzia-beken kopuru garrantzitsuarekin.

Astearen Batzorde Zientifikoan honako irakasle hauek aurki ditzakegu: Eloísa Ramírez Vaquero, Nafarroako Unibertsitate Publikokoa, 2018ko edizioan hizlari-koordinatzaile moduan arituko dena; Julia Pavón Benito, Nafarroako Unibertsitatekoa; Pascual Martínez Sopena, Valladolideko Unibertsitatekoa; Véronique Lamazou-Duplan, Université de Pau et des Pays de l'Adour Unibertsitatekoa; eta Juan José Larrea Conde, Euskal Herriko Unibertsitatekoa.

Galería de fotos



Público asistente al acto de apertura.



Los gaiteros Hermanos Montero actúan ante las autoridades y el



Lehendakariak inaugurazioan daudenekin hitz egiten

público.